


markeliñe

PSYCHE



GAUEKO KALE IKUSKIZUN BERRIA

Formatu ertain- handia
Helduentzat

HURRENGO ESTREINALDIA



**“WARNING:
DO NOT
REMOVE
THIS COVER**

—

**KONTUZ:
EZ
KENDU
TAPA HAU”**



**ZERBAITI
BURUZ
OHARTARAZTEN
DUTEN GAILUAK
DAUDE::**

Eta gure burua tapa babeslea kendu ahal diezaiokegun gailu horietako bat balitz? Zer aurkituko genuke? Zein ezusteren aurrean egongo ginateke?...

“PSIKE” ikuskizuna aukera horretatik hasten da: buru handi baten irudia agertokian, eta barrura sartzea erabakitzen duen pertsonaia. Behin barruan, pertsonaia eta ikus-entzuleek paisaia magikoa, zirrargarria, surrealista... konpartituko dute.





SINOPSISIA

Kaleko artista bat emanaldirako aurreikusita dagoen gunera helduko da eta bere frustrazioa eta haserrea erakutsiko ditu, ez duelako lortzenaintzatespena eta txaloak jasotzeko nahia.

“Buru handi” barrutik datozen barreek artistari iseka egiten diotela dirudi. Ahots probokatzaile horiek isilarazteko ahaleaginean, artistak bere kontzientziaren mamuekin egingo du topo. Onirikoa arrazoari gailentzen zaion bidaiari zorabiagarrian lagunduko dioten izaki kontrolaezinak.

Ustekabeko aldaketak dituen eta apurka-apurka ahultasun baten susmoa iradokitzen digun benetako abentura: definitzen gaituen baina gure kontroletik eta borondatek kanpo dagoen barneko bizitza sekretu baten existentzia.

Azkenean, artistak bere txaloa lortuko du eta, agian, mugitzen gaituena hori dela aitortu beharko dugu. Besteek ezinbestean gu aintzatetsi beharra.

Markeliñe gauarekin jolasten da, kontraste handiko atmosfera soinudunak eta bisualak sortuz. Keinu bidezko interpretazioak, plataforma mugikorren erabilerak, dantzak, txotxongilo erraldoiek eta suaren magiak, beste baliabide batzuen artean, ikuskizun dinamiko, bizigarri, komiko, hunkigarri.. bihurtzen dute “PSIKE”.





Proposamen oniriko eta aurreikusi ezinak sentrazioen espiral bat sortzen du, eta horietan ikusleak bere burua ezagutzen du. Federico Fellini handiak zioen bezala: *“Gure arteak ispilu bat izan beharko luke, eta horren aurrean gure arima guztiz biluzteko ausardia izan beharko genuke”*.

Gidoia eta zuzendaritza:	MARKELIÑE
Koordinazioa:	Iñaki Egiluz
Antzezle taldea:	Fernando Barado Itziar Fragua Gaizka Chamizo Nerea Martínez Jon Koldo Vázquez <i>edo</i> Ander Basaldua
Zuzendaritza teknikoa:	Paco Trujillo Jon Kepa Zumalde
Zuzendaritza artistikoa:	marieta soul estudio creativo
Atrezzo eta osagarriak:	marieta soul estudio creativo Kurva S.L
Eszenografia:	Ingeniería y aventura
Jantzien diseinua:	Maite Hernández
Diseinu grafikoa:	Trupp Comunicación
Produkzioa:	Joserra Martínez
Zabalkuntza:	Gloria Hernández

FITXA ARTISTIKOA



markeliñe

HARREMANETARAKO

+34 94 673 32 57

markeline@markeline.com

www.markelinecom

